

1. ZUZENeko LANGILEEN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO KONTUAN IZAN BEHARREKO HAINBAT FAKTORE

Hizkuntza normalkuntzaren baitan, enpresa/erakunde ezberdinetan martxan dauzkagun Euskara Planetan Zuzeneko langileen parte hartzea bultzatzeko/indartzeko beharra sumatu dugu, enpresa/erakunde askotan Euskara Planak euskara teknikariaren, euskara batzordearen eta zuzendaritzaren arduran gelditu baitira.

1.1. NOLA LORTU ZUZENeko LANGILEEK EUSKARA PLANEAN PARTE HARTZEA?

Lan asko egin dugu Euskara Planak parte hartzaileak izan daitezen plan hauen baitan egitura ezberdinak sortzen (Euskara Batzordeak, erabilera taldeak, lan-taldeak...) baina hainbat kasutan ez dugu lortu kolektiboaren zati adierazgarri baten parte hartzerik. Zertan huts egiten dugu? Zer egin dezakegu?


Galdera hauetatik abiatuta Euskara Planak dinamizatzen dihardugunok Zuzeneko langileen parte hartzea bultzatu nahi dugunean erabiltzeko jarraibide batzuk eta kontuan hartu beharreko urratsak zehaztu ditugu.

Lehenik eta behin, parte hartzea kontzeptua bera argitzea beharrezkotzat jotzen dugu, honek zer nahi dugun argitzen lagunduko baitigu.

1.2. ZER DA PARTE HARTZEA? PARTE HARTZEKO MAILA EZBERDINAK AL DAUDE?

Honetarako, Roger Hartek partaidetzaren tipologiaren eredu metodologikoa erabili dugu. Hartek eskaileraren metafora erabiltzen du partaidetzaren tipologia zehazteko, eta eskailera honek zortzi maila dituela dio.

Ladder of Volunteer Participation



Adapted from Hart, R. (1982). *Children's Participation: From Tokenism to Citizenship*. Florence: UNICEF Innocenti Research Center

Eskailera honetan benetako parte hartzea diren mailak eta itxurazko parte hartzea diren mailak bereizten ditu. Hemen egilearen arabera benetako parte hartzea egon dadin bete beharreko gutxieneko lau baldintzak:

- Parte-hartzaileek proiektuaren helburuak ulertzea
- Euren parte-hartzeari buruzko erabakiak nori hartu dituen eta erabaki horien arrazoiak zein diren jakitea
- Zeregin adierazgarria izatea, eta ez itxurazkoa
- Aurreko guztia jakinda, euren borondatez esku hartzea.

Garrantzitsua. Guk zer nahi dugu? Zuzeneko langileen benetako parte hartzea ala itxurazko parte hartzea soilik? Eta benetako parte hartzea nahi badugu, ze mailatan? Ezertan hasi aurretik erantzun beharreko galderak.

Bada beste faktore bat parte hartzea erabat baldintzatuko duena, eta kontutan izan behar duguna: enpresaren/erakundearen ezaugarriak.

1.3. ZE AUKERA EMATEN DIZKIGU ENPRESAK/ERAKUNDEAK PARTE HARTZEA BERMATZEKO?

Askotan enpresaren erakundearen ezaugarriak kontutan hartu gabe ekiten diogu parte hartzea bultzatzeari, eta lortzen ditugun emaitzak kaskarrak izan ohi dira.

Kontutan izan behar dugu, enpresak berak parte hartzearen inguruan daukan kultura eta enpresaren egiturak eskaintzen dizkigun aukerak:

- Ze aukera daukate langileek erakundean parte hartzeko?
- Badaukate parte hartzeko ohiturarik?
- Beraien erakundean, bileretan, sekzioko helburuak aztertzerakoan... zer nolako parte hartze maila daukate?
- Erakundeak ba al dauka egiturarik parte hartzea bermatzen duenik?
- Erakundetik kanpo dagoen egitura sortu behar/nahi badugu, zein baldintzatan egingo dugu? (Lan orduen barruan parte hartu ahal izango duten...)
-

Erakundearen ezaugarriak kontutan izanda bi bide izango ditugu Euskara Planean Zuzeneko langileen parte hartzea lortzeko. Alde batetik, Euskara Planean sortutako kanalak erabiltzea (lantaldeak, erabilera taldeak...) eta bestetik, erakundearen gune naturalak (hobekuntza taldeak, departamentuetako bilerak...) erabiltzea.

Aurre lan hauek egin beharra dago parte hartzearen arrakasta bermatu nahi badugu, askotan goian aipatutako faktore hauek kontutan ez hartzeak lanean hasi aurretiko porrota ekarri ohi baitu.

Hala ere, badakigu beste hainbat faktore ere kontutan izan behar direla parte hartzea arrakastatsua izan dadin: helburuak ongi zehaztea, hauen jarraipena eta balorazioa egitea, ekintza zuzentzaileak martxan jartzea eta proiektuaren hasiera eta bukaera ongi zehaztea... Oraingoan ordea, parte hartzean eragina izango duten bi faktore hauen garrantzia azpimarratu nahi izan dugu.